

LIBURUTEGIAK BERRIZ IREKITZEN DIRENERAKO PROTOKOLO-
PROPOSAMENA

2020-05-04

- 1.- Eusko Jaurlaritzaren **Osasun Sailak dauka azken hitza**; hortaz, ez da inongo datarik aurreikusiko irekierarako Osasun Sailak esan arte, eta erakunde horren jarraibideak aintzat hartuko dira. Gerta daiteke, beraz, uneraren batean atzera egin behar izatea irekitze prozesuan.
- 2.- Honako hau **trantsizio garaia buruzko proposamena** da; “normaltasun berrira” heldu aurrekoa. Udal bakoitzak bere liburutegien ezaugarrietara eta udalerriaren osasun-egoerara egokitu behar ditu neurri hauek.
- 3.- Proposamen hau lantzeko, **kontuan hartu ditugu** nazioarteko liburutegi erakundearen gomendioak, hainbat aditurenak eta udal liburuzainenak. Eskerrik asko guztiei.
- 4.- Liburutegiak irekitzeko aukera onartzen duenean Eusko Jaurlaritzak, **azken erabakia udal bakoitzarena** da tokiko errealitatea kontuan hartuta.
- 5.- Udalaren baimena heltzen denean, garrantzitsua da **herritarrei informazioa helaraztea eta konfiantza sorraraztea**.
 - Erakutsi liburutegia arriskurik gabeko tokia dela eta horretarako hartu diren osasun eta higiene neurriak azaldu, bai liburutegiaren barruko aldean, baita kanpoaldean ere, kartelen bitartez.
 - Sare sozialetan eta komunikabideetan iragarri egoera eta baldintza berriak.
- 6.- Liburutegi publikoek eta ikasketa- eta irakurketa-gelek honako **neurri hauek** hartzea gomendatzen dugu:
 - 6.1.- Oro har zaindu beharreko baldintzak
 - Langileria
 - Egiatzatu langileetako inor ez dagoela arrisku-taldean.
 - Finkatu zenbat langile behar den liburutegia irekita mantentzeko eta adostu udal agintariekin zenbatek lan egin dezaketen etxetik.
 - Langileen babeserako neurriak eta bitartekoak (guanteak, maskara, jelak) eskuratu.
 - Mantendu pertsonen areko distantzia sozialak eta saihestu bilerak fisikoak.



- Eskuak sarri-sarri garbitu.
- Liburutegiaren garbitasuna
 - Langile bakoitzak ekipo eta leku bakarra erabili, telefonoa barne, eta lanaldiaren amaieran, desinfektatu egin beharko da erabilitakoa: gainazalak, ekipoak, boligrafoak, arkatzak...
 - Gainazalak (mostradoreak, irakurketa-mahaiak, komunak,..) era sistematikoan garbitu.
 - Ahal dela ateak irekita mantendu.
 - Manparak jarri mostradoreetan.
- Herritarrak
 - Mantendu edo egokitu liburutegiaren irekiera orduak, baliabideen eta eskariaren arabera.
 - Bertan batera egon daitezkeen pertsonen kopurua zehaztu: oro har, lehendik markatutako kopuruaren erdia hobesten da edo bestela pertsona bat hamar metro koadroko.
 - Ahal bada, ibilbide bat finkatu mailegu gunetara heltzeko.
 - Pertsonen arteko distantzia zaindu: gutxienez metro eta erdi errespetatu. Lurrean markatu zinta batekin.
 - Erabiltzaileak banaka etorriko dira, menpekotasunen bat duten pertsonak izan ezik. 14 urtetik beherakoak familiako nagusi batekin etorriko dira, egoera hau mantendu bitartean. Poltsa bat ekarri behar dute maileguak jasotzeko.
 - Liburutegiko geletara sartzen diren herritarrek eskuak desinfektatu behar dituzte edo eskularruak erabili. Ahal bada, liburutegiak berak eskainiko die jela edo eskularruak.
 - Komunak itxita egongo dira erabiltzaileentzat.

6.2.- Maileguari dagokionez

- Liburutegi bakoitzak baloratu behar du ea zerbitzu hau eskaini ahal duen eta zein modutan egingo duen. Lehenengo fasean gomendatzen da aurrez eskatutako liburuak bakarrik mailegatzea, hots, herritarrek ez ditzatela ukitu liburuak edo apalak.
- Mailegatutako materialak itzultzeko
 - Osasun Sailak esan arte irizpide hauek indarrean egon behar dute.
 - Lurrean jarritako kutxetan sartu.
 - Liburuak kutxak gutxienez astebete, hobeto hamabost egun, itxita mantendu eta, ahal bada, toki berezi batean jarri. Denbora tarte horretan mailegatuta bezala azalduko dira katalogoan.
 - Bestelako materialak (DVDak,...), ahal bada, banan-banan desinfektatu.



- Mailegu berriak egiteko
 - Bermatu eta iragarri materialak garbi daudela.
 - Material fisikoen kasuetan ere, erabiltzaileak, ahal bada, maileguak whatsappen bidez edo emailaz edo telefonoz eskatu behar ditu eta mostradorean jaso. Bestela, osasun neurriak errespetatu behar dira apaletara heltzeko.
 - Ahal dela txartel fisikoa ez erabili eta irakurgailuak sarri garbitu.
 - Aztertu ea posible eta bideragarria den etxez etxeko mailegua. Baiezko kasuan, osasun-neurriak errespetatu.
- Liburutegien arteko mailegua
 - Lehen fase honetan ez da indarrean egongo.
 - EIPSak jakinaraziko du noiz hasi itzultzen liburutegi bakoitzak dituen maileguak.
 - Liburutegi bakoitza arduratuko da garbitasun-neurriak betetzeaz.

6.3.- Erosketa berriak

- Segurtasun neurriak bermatuta.

6.4.- Fotokopiagailuen eta ordenagailuen erabilera

- Liburutegietako langileek bakarrik erabil ditzakete, ez bada bermatzen erabiltzaile bakoitzak erabili eta gero ekipoen garbiketa egingo dela.

6.5.- Prentsa irakurtzeko gelak

- Itxita egoera normaldu arte.

6.6.- Haur-liburutegiak

- Bakarrik mailegu zerbitzua eta familiako nagusi batek lagunduta. Komenigarria da katalogoa etxean kontsultatzea eta liburutegira mailegua jasotzera bakarrik joatea.

6.7.- Ikasketa gelak

- Baloratu ireki daitezkeen edo ez. Irekitzekotan,
 - Berez duten aforoaren erdia erabili
 - Pertsonen arteko distantzia zaindu: gutxienez bi metro.



- Mahai bakoitzean bat, inor ez parean.

6.8.-Taldeentzako gelak eta ekintzak

- Talde-lanen gelak itxita.
- Irakurketa-klub eta abarren bilerak online egiten saiatu.

7.- Indartu liburutegia

- Lehenetasunak berriro definitu gizarte-premietara eta digitalizazioaren hazkundera egokitzeko.
- Liburutegiaren berri zabaltu herrian